



AKTA SAN PEDRO JAIK 2012 1. FASEA 2. BILERA: MUSIKA EKITALDIAK			
DATA: 2012.03.14 TOKIA: Kultur Etxea	BILERA: 2	HASIERA: 18.30	BUKAERA: 20.00

DEITUAK:

- San Pedro jaien diseinuan parte-hartu nahiko lukeen herritar oro.
- Herriko talde eta organismoa kultural ezberdinak (konbokatoria zuzena).
- Herrian musikaren inguruko organismo ezberdinak: musika taldeak, musikariak,...

BERTARATUAK: 19 herritar.

GAI ORDENA:

1. Aurkezpena eta ongi etorria: Parte-hartze saileko teknikari eta zinegotzia, eta Gazteria, Festak eta Kirola saileko zinegotzi eta teknikaria.
2. Diseinatutako parte-hartze prozesu osoaren aurkezpen laburra: batik bat, zein bileratan gauden, eta honen helburu nagusiak zein diren azaltzeko.
3. San Pedro jaietan 2012. urtean musika ekitaldiak antolatzeke dagoen aurrekontuaren inguruko berri ematea.
4. Musika ekitaldiekin jaietako egitarauan bete beharreko tarteen proposamenaren aurkezpena. Okendo – Isla plaza – Andatza plaza – Herriko kaleak.
5. Sorgin Jaiakekin Okendoko eskenatokia betetzeko egindako akordioaren inguruan berri eman.
6. Proposamen bilketa. Parte-hartze sailak dinamizatu eta koordinatuko du hau.
7. Bestelako aportazioak.
8. Hurrengo bilerarako gonbita, eta amaiera.

BILERAREN HASIERA ETA AURKEZPENA:

Bileraren hasiera eta aurkezpena aurrez planifikatu gisara egin dira. Jaietako aurrekontuaren inguruko datuak eta lehengo urteko jai egitarauaren nondik-norakoak aurkeztu dira lehenik. Musika ekitaldien inguruko bilera espezifikoa izanik hau, gainera, lehengo urteko ekitaldi guztiez gain, 2012. urteko jaietarako behin-behineko ordutegien proposamen bat aurkeztea ere hobetsi da, bilera dinamikoagoa izan dadin eta proposamen bilketa burutzea erraztearren.

Proposamen honen baitan gainera, Udaletxeak 2012. urterako Sorgin Jaiak herriko elkartearekin adostutako Okendo plazaren erabileraren berri eman da: herriko erdigunea aurtengoan jaien gunen zentral izango da, eta KOORDINATU egingo dira bai ekitaldiak, bai Okendoko eskenatoki handiaren erabilera ere.

Azalpen guzti hauen ostean, parte-hartze prozesua martxan jarri da. Lehenik, bakoitzari bere ideiak eta proposamenak bakarka lantzeko eskatu zaio. Ostean, musika eta gometxen bidez bost talde txiki osatu dira, eta proposamen guztiak beranduxeago talde handian komunean jarri eta bildu dira.

BILERATIK JASOTAKO PROPOSAMENAK:

Proposamen zehatzak:	
Ekainaren 28an	KALE ANIMAZIOA: <ul style="list-style-type: none">- Helduen DANBORRADA Andatza plazatik pasatu dadila.
Ekainaren 29an	KALE ANIMAZIOA: <ul style="list-style-type: none">- JOTAK arratsaldean: lehenago Kultur Etxean egiten zen ekitaldi bat, eta ondo legoke Andatza plazan, kalean antolatzea, adibidez.- Gauean Okendo plazan ERROMERIA (Ttakunek antolatua?) dagoen bitartean, TXARANGA ibili dadila herri osoan zehar.
	KONTZERTUAK: <p>Ez da proposamenik jaso, Okendo plazan Ttakunek erromeria bat jartzeko aukera aurreikusi delako (beste urte batzuetan zikiri afariaren ostean egin gisara).</p>

	<p>DJ-AK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Okendo plazan, ostiraleko kontzertuen ostean, DJ bat jartzea. Posible balitz, musika komertziala jartzen ez duena, edota bi edo hiru DJ ezberdin. Sare sozialen bidez herritarrek zein kantu entzun nahi dituzten ere esateko aukera izatea ondo legoke. - Proposamena: lehengo urtean txosnetan izan zen DZ. Sorgin Jaiakeko kideek aukeretako bat dela erantzun dute (ostiralean, erromeriaren osteko programazioa haien esku dagoela adostu baita).
<p>Ekainaren 30ean</p>	<p>KONTZERTUAK:</p> <p>Okendo plaza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BANDA BASSOTI: Lasarte-Orian askotan egondakoak dira haiek, eta proposamena luzatu duenak ezagunak ditu. Prezio merkean etortzeko prest omen leudeke. - LOS DELINCUENTES. - SU TA GAR. - OBRINT PAS. - LA PEGATINA (II-tan atera da). - BERRI TXARRAK (II-tan atera da). - LA RAIZ: giran egongo dira udan. La Pegatinaren antzeko musika egiten dute. - DELOREAN. - WE ARE STANDARD. <p>Andatza plaza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Normalean egon ohi den orkestra beharrear, LOKA FM bezalako Dj bat gauean.
	<p>DJ-AK:</p> <p>Okendo plaza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bilerako partaide batek bere burua aurkeztu du. Lasarte-Oriako Dj-a da bera, eta herriko jaietan debalde musika jartzeko prest legoke. Musika ekipoa eta argiak Udaletxeak jartzea soilik eskatzen du.
<p>Uztailaren 1ean</p>	<p>KONTZERTUAK:</p>

	<p>Andatza plaza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Orkestra bat ondo legoke. <p>Okendo plaza:</p> <ul style="list-style-type: none"> - BARRICADA. - MATXURA. - KEROBIA. - S.A.
--	---

Proposamen orokorrak:

- Txarangak arratsalde-gau parteetan ibiltzea herrian zehar, eta goizez berriz, dultzainero taldeak, txistulariak,...
- Txaranga tradizionala baino, beste mota batetako kantuak ere jotzen dituzten txarangak ekartzea: adibidez, BONBERENEA txaranga.
- Herri kirolekin batera, erromeria bat, trikitixa,... jartzea, goiza girotzeko.
- Herriko talde eta musikariei ere jaietan jotzeko aukera ematea, eta zerbait sinbolikoa gutxienez ordaintzea. Larunbatean, adibidez, maketa lehiaketako irabazleez gain, herriko taldeekin egin kontzertua, eta ostean, Dj bat jartzea.
- Kontzertu handien prezioak negoziatzea: horrela askoz merkeago lortu daitezke eta.
- Duela urte batzuk “muestra de música local” delakoa antolatu zen, Parapetoan entsegatzen duten zenbait talderen eskutik. Ekimen hau errepikatzea egokia litzateke.
- San Pedroetan jotzen duten talde handiak euskaldunak izan beharko lukete.
- Orduetarik gabeko egun bat: txosna gau guztian zabalik egon ahal izateko, adibidez.
- Azken egunean jaiak ere berandura arte irautea (igandea bada ere).
- **HAUR ETA GAZTE EKITALDIAK: Herriko gaztetxoek parte-hartzea sustatzeko, adibidez, flash-mob bat antolatzea haientzat.**
- **HAUR ETA GAZTE EKITALDIAK: karaoke bat antolatzea haurrentzat.**
- Arratsaldean zehar ere kontzertu lasaiagoak antolatzea. Adibidez, MIKEL URDANGARIN, BENITO LERTXUNDI,...
- Xpressionk!-rekin hitz eegitea jaietako zenbait musika ekitaldi antolatzeko.
- Isla plazako berbenei kritika: emakumearen irudia zaindu egin beharko litzateke horrelako ekitaldietan.

Beste bilera batzuetan irtendako musikari dagozkion proposamenak

- MUSIKA: herriko kaleetan zehar txaranga egunero egon dadila, eta tabernaz taberna beharrez, kaleetatik zehar ibili dadila.
- MUSIKA: txaranga modernizatzea: kantu modernoagoak jo ditzaketen taldeekin kontaktatzea, adibidez.